

BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZEN ERROLDA. HEZKUNTZA. 2024-01-01

Euskal AEko 15 urtetik gorako biztanleen ia % 44k goi mailako hezkuntza amaituta zuen 2024an

Lehen hezkuntzako eta beheragoko mailek 15 urte eta gehiagoko biztanleriaren % 11,1 biltzen dute, aurreko urtean baino 7 hamarren gutxiago

Eustaten datuen arabera, 2024an, Euskal AEn bizi ziren 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 43,9k goi-mailako ikasketak —unibertsitateko edo lanbide-heziketako ikasketak— amaituak zituzten. Kolektibo horrek 836.632 pertsona barne hartzen ditu, eta ehuneko 6 hamarren igo da 2023ren aldean. Bestalde, derrigorrezko hezkuntza edo maila apalagoren bat amaituta zuen biztanleria % 35,5 zen (677.007 pertsona), 2023an baino 7 hamarren gutxiago.

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleak, lortutako prestakuntza-mailaren arabera. 2022-2024

	2024	2023	2022	2024 (%)	2023 (%)	2022 (%)
Lortutako prestakuntza-maila	1.906.571	1.895.243	1.879.375	100	100	100
A. Bigarren eta beheko Hezkuntzako lehen etapa (0-2 maila)	677.007	685.830	686.009	100	100	100
0. Lehen Hezkuntza baino gutxiago	28.713	30.724	31.983	4,2	1,6	1,7
1. Lehen Hezkuntza	183.951	192.741	200.395	27,2	10,2	10,7
2. Behe-mailako Bigarren Hezkuntza: DBHra arte eta baliokideak	464.343	462.365	453.631	68,6	24,4	24,1
B. Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa eta Goi mailakoa ez den bigarren Hezkuntzaren ondokoa (3-4 maila)	392.932	387.896	382.308	58,0	56,6	55,7
3. Goi Mailako Bigarren Hezkuntza: Batxilergoa, Lanbide Heziketa, erdi-mailako zikloa eta baliokideak	381.116	376.000	370.307	56,3	19,8	19,7
4. Hirugarren mailakoa ez den bigarren Hezkuntzaren ondoko Hezkuntza: 3. mailako lanbide-ziurtagiriak eta baliokideak	11.816	11.896	12.001	1,7	0,6	0,6
Goi-mailako ikasketak (doktoregoa barne) (5-8 maila)	836.632	821.517	811.058	123,6	119,8	118,2
5. Lanbide-heziketako goi-mailako zikloaren eta baliokideen jarduerak	298.424	291.217	291.103	44,1	15,4	15,5
6. Unibertsitate-ikasketak, diplomaturak eta baliokideak	196.521	193.565	186.876	29,0	10,2	9,9
7. Lizentziaturak, gradu bikoitzak eta masterrak	319.821	314.962	311.523	47,2	16,6	16,6
8. Doktorego-bartela edo baliokidea	21.866	21.773	21.556	3,2	1,1	1,2

Data 2025eko Irailaren 30a

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Hezkuntza

Hezkuntzaren Sailkapen Nazionalaren (CNED-A) arabera, lehen prestakuntza-taldea bigarren hezkuntzako lehen etapari edo horren azpitik dagoenari dagokio, hau da, oinarrizko eta derrigorrezko ikasketetatik hasi eta beheko mailetaraino. Talde horretan dago 16 urte edo gehiago dituen biztanleriaren % 35,5 —aurreko urtean baino 0,7 hamarren azpitik—. Bertan sartzen dira lehen mailako ikasketak osatu gabe dituzten pertsonen % 1,5, lehen hezkuntzako ikasketak dituztenen % 9,6 eta bigarren hezkuntzako lehen etapako ikasketak dituztenen % 24,4; bertan aurkitzen ditugu, besteak beste, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko edo Oinarrizko Batxilergoko titulu baliokideak dituztenak, lanbide-prestakuntza batzuez gain.

Bigarren taldea goi-mailakoa ez den bigarren hezkuntzari eta bigarren hezkuntzaren ondokoari dagokio; bertan, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 20,6 sartzen da, hau da, 2023ko datuekin alderatuta ehuneko 0,1 puntu gainerik. Hezkuntza-maila horren barne hartzen dira Batxilergoa eta bere aldaera guztiak, baita oinarrizko eta erdi-mailako lanbide-irakaskuntzak ere. Hirugarren taldeari dagokionez, goi-mailako hezkuntzak biztanleriaren % 43,9 hartzen du; datu horrek 0,6 puntuko igoera adierazten du aurreko urtearekiko. Talde horren barruan, % 15,7 goi-mailako lanbide-heziketari dagokio, eta 298.424 pertsona sartzen dira bertan.

Plentzia-Mungiak eta Gorbeia Inguruek dute goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen proportziorik altuena, Urola-Kostarekin batera

16 urte edo gehiagoko biztanleen prestakuntza-maila aztertzean, lurralde historikoen arabera bereizketa kontuan hartuta, diferentzia txikiak ikus daitezke ehunekoetan. Araban, A taldeko prestakuntza-maila —bigarren hezkuntzako lehen etapa edo beheagokoa— duten pertsonen proportzio handiagoa erregistratu da, eta 16 urteko edo gehiagoko biztanleen % 36,7 izatera iritsi da. Kopuru hori Bizkaikoa (% 35,6) eta Gipuzkoakoa (% 34,8) baino zertxobait handiagoa da.


Euskal A Eko 16 urte eta gehiagoko biztanleria, prestakuntza-mailaren arabera, lurralde historikoari jarraiki (%). 2023-2024

	Euskal AE		Araba / Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	2024	2023	2024	2023	2024	2023	2024	2023
Lortutako prestakuntza-maila	1.906.571	1.895.243	285.199	283.294	1.000.326	994.166	621.046	617.783
A. Bigarren eta beheko Hezkuntzako lehen etapa (0-2 maila)	35,5	36,2	36,7	37,3	35,6	36,4	34,8	35,3
B. Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa eta Goi mailakoa ez den bigarren Hezkuntzaren ondokoa (3-4 maila)	20,6	20,5	21,9	21,6	20,2	20,0	20,7	20,8
Goi-mailako ikasketak (doktoregoa barne) (5-8 maila)	43,9	43,3	41,4	41,1	44,2	43,6	44,4	43,9

Data 2025eko Irailaren 30a

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Hezkuntza

B taldeari dagokionez (bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta goi-mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondokoa barne hartzen ditu), Arabak du ehunekorik altuena, % 21,9; Gipuzkoak % 20,7 du, eta Bizkaia % 20,2. Aitzitik, goi-mailako hezkuntzari dagokionez (C taldea), Gipuzkoak du proportziorik handiena (% 44,4), ondoren Bizkaia dator (% 44,2), eta Araba zertxobait beheago dago (% 41,4).



Goi-mailako prestakuntza-mailan dauden aldeak nabarmenagoak dira eskualde-mailan. Plentzia-Mungia eta Gorbeia Inguruak nabarmentzen dira goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen erdia baino gehiago dutelako (% 56,1 eta % 52,9, hurrenez hurren). Zifra horiek Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino ehuneko 12,2 eta 9 puntu handiagoak dira. Beste muturrean, Arabako Errioxak (% 34) eta Enkarterriek (% 37,1) dituzten ehunekorik txikienak, non biztanleriaren heren batek, gutxi gorabehera, goi-mailako prestakuntza duen.

Euskal AEko hiriburuen artean, Donostia da goi-mailako ikasketak dituztenen proportzioaren buru (% 51,3), ondoren Bilbo (% 48,1) eta Gasteiz (% 40,8) daude. Ordena hori bat dator lurralde historikoetan ikusitako joerarekin; izan ere, Gipuzkoa da nagusi goi-mailako hezkuntza duten biztanleen proportzioari dagokionez ere.

Euskal AEn bizi diren 16 urteko eta gehiagoko gizonen % 44,4k eta emakumeen % 43,4k goi-mailako prestakuntza dute

16 urte eta gehiagoko gizonetan eta emakumeetan, talderik ugariena goi-mailako hezkuntza dutenena da, % 44,4 gizonetan eta % 43,4 emakumeetan; ondoren dator bigarren hezkuntzako lehen etapa eta beharagokoa, eta talde horrek garrantzi erlatibo handiagoa du emakumeetan (% 37,6) gizonetan baino (% 33,2); eta, azkenik, bigarren hezkuntzaren ondoko bigarren etapa, goi-mailakoa ez dena, dago; talde hori ohikoagoa da gizonetan (% 22,3) emakumeetan baino (% 19). Lurralde historikoen arabera, eta goi-mailako hezkuntzari dagokionez, Araban bizi diren emakumeen kolektiboa nabarmentzen da, gizonen kolektiboak baino balio erlatibo handiagoa duelako (% 41,8 eta % 41, hurrenez hurren).

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleak, lortutako prestakuntza-mailaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (%). 2024

	Euskal AE			Araba / Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Lortutako prestakuntza-maila	1.906.571	916.288	990.283	285.199	138.653	146.546	1.000.326	476.995	523.331	621.046	300.640	320.406
A TALDEA	677.007	33,2	37,6	104.642	35,4	37,9	356.201	33,0	37,9	216.164	32,6	36,9
B TALDEA	392.932	22,3	19,0	62.375	23,6	20,2	201.700	21,9	18,6	128.857	22,5	19,1
C TALDEA	836.632	44,4	43,4	118.182	41,0	41,8	442.425	45,1	43,4	276.025	44,9	44,0

Data 2025eko Irailaren 30a

Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Hezkuntza

16 urte edo gehiagoko hamar pertsonatik batek ikasten jarraitzen du, eta horietatik ia erdia goi-mailako ikasketak egiten ari da

2024an, Euskal AEko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 11,2 (213.854 pertsona) ikasketa-mailaren batean matrikulatuta dago. Ikasle-talde horren ia erdiak, % 49,4k (105.559 pertsona guztira), goi-mailako hezkuntzan ikasten du. % 40,2 (86.063 pertsona) bigarren hezkuntzan eta bigarren hezkuntzaren ondoko mailan dago. % 7,5, hau da, 16.012 pertsona, bigarren hezkuntzako lehen etapako edo maila txikiagoko mailan daude. Eta, azkenik, % 2,9 (6.220 pertsona) helduen hezkuntza ez-formalean matrikulatuta dago.


16 urte edo gehiagoko ikasleen artean, oro har eta sexuaren arabera banakatuta, gehiago dira emakumeak (% 52,7) gizonak baino (% 47,3). Alde hori indarrean dauden hezkuntza-maila guztietan mantentzen da. Goi-mailan, emakumeak % 53 dira, hau da, gizonen aldean ehuneko 6 puntuko diferentzia dago.

Gizonen eta emakumeen kolektiboa bereizita aztertuz gero, banaketak antzekoak dira. Emakumeen artean ikasleen proportzio handiagoa dago goi-mailako irakaskuntzan (+0,7 puntu) eta, bereziki, hezkuntza ez-formalean (+1,2 puntu); gizonen artean, berriz, ikasleen proportzio handiagoa dago bigarren hezkuntzako bigarren etapan eta goi-mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondokoan (+1,6 puntu) eta bigarren hezkuntzako eta beheragoko hezkuntzako lehen etapan (-0,3 puntu).

Goi-mailako ikasketak egiten ari diren euskal biztanleak ikastera lurralde historiko bereko beste udalerri batera joaten dira batez ere

2024an, bigarren hezkuntzako eta goi-mailakoak ez diren bigarren hezkuntzaren ondoko ikasleen erdiak baino gehiagok (% 55,3) beren udalerrian bertan ikasten dute, eta, ondoren, bigarren hezkuntzako edo beheragoko hezkuntzako lehen etapako ikasleen taldea dago (% 49,6). Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateko edo goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak egiten ari diren 16 urteko eta gehiagoko biztanleen % 44,8 beren lurralde historikoko udalerri batera joaten da, hau da, 47.263 pertsona. Hezkuntza-maila horretan, nabarmenezkoa da ikasleen % 18,2 autonomia-erkidegotik kanpoko edo atzerriko zentroetara joaten dela; joera hori ez da ikusten gainerako hezkuntza-mailatan.

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko ikasleak, uneko ikasketa-mailaren eta ikasketa-lekuaren arabera (%).
2024/01/01



Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Hezkuntza

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62